



TIPI-TAPA
KORRIKA!

0. AZALA

59. irakurketa gidan, aukera izango dugu jakiteko nolako lotura dagoen Korrikaren eta euskararen artean. Gaian murgiltzeko, azala arakatzen hasiko gara, eta, horretarako, ariketa hau egitea proposatzen dizuegu, aldizkariarekin modu dibertigarrian hasteko:

- Lehenik eta behin, lainotxoan ageri den izenburua estaliko dugu.
- Gero, azalean agertzen den marrazkiari erreparatuz, norberak istorio txiki bat sortuko du (zenbat eta gehiago izan, orduan eta dibertigarriagoa izango da).
- Ondoren, istorio txikien lehiaketa bat egitea proposatzen dugu.
- Amaitzeko, guztion artean izena jarriko diozue aldizkariari.

Aldizkariarekin amaitzean, azalean estalitako izenburua ikus dezakezu, ea norbaitek asmatu duen!

2. AURKIBIDEA

Aldizkariko aurkibidean agertzen zaizuen laburpena irakurri ostean (ez ahaztu bertan laburtzen dela komikian ikusiko duzuen guztia), esaiozu haurrari, aurkibidean zaretelarik:

- Ikusi al dituzu Pupu eta Lore korrika?
- Badakizu aldizkariko beste atal batean ere ageri ote den irudi hori?
- Minutu bat duzu aldizkaria arakatzeko azkar-azkar.

EZ AHAZTU HAURRA ANIMATZEAZ!!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

3. PUPU ETA LORE

Irakurri komikia lasai-lasai, eta, gero, jolastu egingo gara. Jolaserako, hauxe beharko duzue:

- Orri zuri batzuk, zatiturik, galdera labur bat sartzeko moduko pusketetan.
- Galderak egiteko adibideak:
 - Gogoratzeko al zara Pupuk korrika nola esan duen?
 - Izendatu komikian ezagutzen dituzun pertsonaiak.
 - Zer dakar eskuan mutikoak?
 - ...
- Prestatuko orritxoak esku artean dituzuenean, jar itzazue lurrean, edo mahai gainean buelta emanda.
- Galdera bakoitza erantzuteko denbora 50 segundo izango da.
- Galdera gehien asmatzen duenak modua izango du nahi duen kirol mota hautatzeko.

4. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Irudimena lantzeko jolas txiki bat proposatzen dizuegu oraingo honetan. Estali itzazue komikiko lainotxo batzuk; nahi dituzuenak, ados? Gero, esaiozu haurrari:

- Hara! Pirritx, Porrotx eta Marimototxen atalean lainotxo batzuk betetzeaz ahaztu dira! Animatuko al gara lainotxo horiek betetzen?

Amaitzeko, istorioa ulertu dugun edo ez jakiteko, galderatxo batzuk egitea proposatzen dizuegu!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

5. TIRITAXO

Tiritatxok zenbait aholku ematen dizkigu korrika egiteko. Gure lana hau izango da:

- Lehenik eta behin, goitik behera irakurriko ditugu Tiritatxoren aholkuak.
- Gero, ulertu ez dugun guztia ulertzen saiatuko gara.
- Jarraian, Tiritatxok eman dizkigun aholkuak puntuka jarriko ditugu orri zuri batean, laburtuta.
- Amaitzeko, marrazki polit batzuez apainduko dugu gure orria.

6. MARIMATRAKAK

Gehiago jolastu nahi? Horixe galdetuko diogu haurrari atal honetara iristean. Honetan datza jolasa:

- Helburua ezkutuko arrastoak aurkitzea da.
- Arrastoak hauek izan daitezke:
 - 1. Kolore jakin batzuk, A edo B letraz hasten diren hitzak aurkitzea...
- Horrez gain, mugak jarri beharko dituzue. Hitz kopurua, denbora...
- Amaitzeko, sari gisa, haurrari gustatzen zaion jolas bat egingo duzue.

Ez ahaztu jolasa ingurukoekin eta geure buruarekin dibertitzeko eta ikasteko dela, eta ez haserretu eta amorratzeko!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

7. BARATZE URBANOA

Karakola eta Barearen istorioan murgilduko gara. Horretarako, hau proposatzen dugu:

- Binaka jarrita bata Barea eta bestea Karakola, komikia irakurri lasai-lasai.
- Komikia irakurrita daukazuenean, galdera batzuk egin, ulermena lantzeko:
 - Nora doa Karakola?
 - Korrika zer da?
 - Zer egiten da Korrikaren amaieran?
 - ...

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Bertsoak irakurri edo kantatzen hasi aurretik, zera proposatzen dizugu:

- Galdetu haurrari, marrazkiak ikusita, zeri buruzkoak izango diren bertsoak.
- Animatu haurra marrazkian zer ikusten duen deskribatzera. Ea zer dioen!
- Gero, eskatu leku lasai eta goxo batean esertzeko, eta esan bertsoak bion artean irakurriko dituzuela.
- Bertsoak txandaka irakurtzea proposatzen dizuegu; bat irakurtzen ari den bitartean, besteak begiak itxi beharko ditu.
- Bertsoak irakurtzen amaiturik, animatu haurra irakurri diozun horretatik gehien gustatu zaion pasarte adieraztera. Galdetu zergatik aukeratu duen pasarte hori.
- Galdetu ea beste bertso bat asmatzea nahi duen.



TIPI-TAPA
KORRIKA!

9. LAGUN

Lagunen atalarekin hasi aurretik, hau proposatzen dizuegu:

- Irakurri izenburua, eta egin batak besteari galderak:
 - Zeri buruzko istorioa izango dugu komikian?
 - Lagun pozik ageri da, haserre... Zergatik ote?
- Gero, irakurri bion artean istorioa, eta, amaitzean, galdetu haurrari:
 - Zer gertatu zaio Laguni?
 - Zergatik amaitu du haserre?

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Ehunzangoari buruzko informazioa irakurtzen hasi aurretik, hau egin dezakezue:

- Zure haurtxoak espezie horren izena asmatu beharko du. Horretarako, aldizkariko marrazkiak ikusi gabe, aurrena irakur iezaiozu zure haurrari, ahoz gora, ehunzangoari buruzko ezkeraldeko testutxoak.
- Irakurtzen amaitzean, galdetu ea zer bururatzen zaion.
- Asmatzen ez badu, hasi testuko beste esalditxo batzuk irakurtzen poliki-poliki... asmatu arte!
- Testu guztia amaitzean, galdetu haurrari zein informazio iruditu zaion interesgarriena.
- Amaitzean, hau planteatu ahal duzue: mendira joaten zareten batean, ehunzangoak aurkitzen saiatuko zarete. Aurkituz gero, guri bidali argazkiak!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Izenburua irakurriz hasiko gara!

- Eskatu haurrari testuko izenburua irakurtzeko.
- Gero, galdetu haurrari izenburuan agertzen den horri buruz, ea zer iruditzen zaion.
- Horren inguruan hitz egin ondoren, proposatu komikitxo bat bion artean irakurtzeko.
- Amaitzean, galdetu haurrari zerbait ikasi duen, eta eskatu ikasi duen hori adierazteko.

12. MARTIN BERTSO

Komikitxo bat irakurtzen hasi aurretik, galdetu haurrari Korrikari buruz zer dakien. Gero, irakurri komikitxo bat.

Jarraian, Belarriprest eta Ahobizi-ren inguruan hitz egin. Haurrak ez badu ulertzen zer esan nahi duten, saiatu ondo azaltzen.

Argi azaldu hitz egitea eta belarria adi izaten saiatzea ezinbestekoa dela hizkuntza bat bizirik irauten laguntzeko!

13. MARIKALANBRE

Marikalanbreren istorioan, gauza interesgarri bat ikasiko dugu!

Proposatu haurrari testutxo bat irakurtzeko, eta, amaitzean, egin zuek ere haiek egiten duten hori!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

14. LARGABISTA

Largabista naturarekin harremanetan aritzen zaigu sarri... Eta orain ere hala dihardu... Leku askotan, gainera.

Gure proposamena da leku horietaz bion artean irakurri eta luze hitz egitea.

Leku ederretan dabil, Euskal Herriko txoko zoragarrietan.

Behin tokien izenak jakinda, irudiak ikusita... leku horiek bisitatzea tokatzen da!

Animatu eta egin irteeratxoak familian!

15. HAUR KANTAK

Oraingo honetan, Korrikaren abestia irakurri eta kantatzeko aukera izango duzue!

Hona gure proposamena: abestia irakurtzeko, lagundu melodia batez; Interneten aurkitu ahal izango duzue bat baino gehiago.

Aukeratu Interneten melodia, eta abestu bion artean!



TIPI-TAPA
KORRIKA!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Testua zuk irakurriko diozu. Hala ere, irakurtzen hasi aurretik, AEKri buruz hitz egin haurrari. Azaldu erakunde horren inguruan zer dakizun. Horretarako, azken orriko testutxo erabil dezakezu.

Amaitzean, irakurri testua haurrari, eta, gero, egin galdera hauek haurrari:

- Zer iruditzen zaizu euskararen alde egiten den ekintza hori?
- Zein beste ekintza egingo zenuke zuk?